

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2020-11-10(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAk erabagi hau hartu dauela:

## **12-GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2020. URTERAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.**

### **Xedea**

Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2020. urterako diru laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berriazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Berriazko Oinarri horien artean, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2020. urterako diru laguntzenak onartu ziren. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena: 2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkurak, zenbait Berriazko Oinarri aldatzea onartu zuen eta, euren artean, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2020. urterako diru laguntzenak. Erabaki horren iragarkia 2020ko urriaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

### **Argudioak**

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Diru laguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina 2019ko ekainaren 21eko 2019/1.479 Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zen.

### **Erabagia**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bozketa nominatiboa egin ondoren, aho batez, honako hau ERABAGI dau:

LEHENENGOA: Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2020. urterako diru laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea,



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E40005429D00E4E3L7H0P6Y8

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 12/11/2020  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 12/11/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/11/2020  
11:47:20

EXPEDIENTE ::

2020IDA\_ERA\_0210

Data: 22/10/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko uztailaren 8an eta urriaren 26an argitaratutako oinarrien arabera.

**BIGARRENA:** Deialdi honen publizitatea BDNS datu basera bideratzeko agindua ematea Ekonomia Sailari.

**HIRUGARRENA:** Bermeoko Udalaren Webgunean deialdi honen publizitatea txertatzeko agindua ematea ATB Sailari.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

O rri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40005429D00E4E3L7H0P6Y8

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 12/11/2020  
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 12/11/2020  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/11/2020  
 11:47:20

EXPEDIENTE ::  
 2020IDA\_ERA\_0210

Datea: 22/10/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:  
 Erregistro nagusia

